



EIBAR
Udala | Ayuntamiento



EIBARKO UDALA
Ayuntamiento de Eibar

HAUTAKETA-PROZESUA

OFIZIAL ELEKTRIKARI BI LANPOSTU

Lehenengo ariketa

2025-10-23



- 1 Espainiako 1978ko Konstituzioaren 1.1 artikulua ezartzen du Espainia zuzenbideko estatu sozial eta demokratikoa dela eta bere ordenamendu juridikoaren balio nagusi gisa honako hauek aldarrikatzen dituela:**
 - 1a) Askatasuna, aniztasun politikoa eta subiranotasuna.
 - 1b) Askatasuna, berdintasuna eta anaitasuna.
 - 1c) Askatasuna, justizia, berdintasuna eta aniztasun politikoa.
 - 1d) Askatasuna, berdintasuna, eta aniztasun politikoa eta sindikala

- 2 Abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren (Euskal Herriaren Autonomiarena) 6.1 artikulua arabera, Euskadiko biztanleek:**
 - 2a) Euskara eta gaztelania jakiteko eta erabiltzeko eskubidea dute.
 - 2b) Euskara eta gaztelania ezagutu eta erabiltzeko betebeharra dute.
 - 2c) Euskara eta gaztelania ezagutzeko betebeharra dute.
 - 2d) Gaztelania jakiteko eta erabiltzeko betebeharra dute, bai eta euskara jakiteko eskubidea ere.

- 3 Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna lortzeko eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabe bizitzeko Legearen testuategia onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 21.1 artikulua arabera, enplegu publikoko lanpostuak lortzeko, betetzeko eta mailaz igotzeko hautaketa-prozesuak erregulatzen dituzten administrazio-arauek edo -egintzek, praktikaldiak barne hartuta, honako hauek jaso behar dituzte:**
 - 3a) Klausula bat, zeinaren bidez, gaikuntza-berdintasuna egonez gero, emakumeei lehentasuna emango zaien emakumeak % 20 baino gutxiago diren Administrazioaren kidego, maila, eskala eta kategorietan. Salbuespena izango da lanposturako beste hautagaiak neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duten arrazoiak izatea, sexuan oinarritutako diskriminaziorik eragiten ez dutenak, hala nola lanpostuak lortzeko eta mailaz igotzeko zailtasun bereziak dituzten beste kolektibo batzuetako kide izatea.
 - 3b) Klausula bat, zeinaren bidez, gaikuntza-berdintasuna egonez gero, emakumeei lehentasuna emango zaien emakumeak % 30 baino gutxiago diren Administrazioaren kidego, maila, eskala eta kategorietan. Salbuespena izango da lanposturako beste hautagaiak neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duten arrazoiak izatea, sexuan oinarritutako diskriminaziorik eragiten ez dutenak, hala nola lanpostuak lortzeko eta mailaz igotzeko zailtasun bereziak dituzten beste kolektibo batzuetako kide izatea.



- 3c) Klausula bat, zeinaren bidez, gaikuntza-berdintasuna egonez gero, emakumeei lehentasuna emango zaien emakumeak % 40 baino gutxiago diren Administrazioaren kidego, maila, eskala eta kategorietan. Salbuespena izango da lanposturako beste hautagaiak neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duten arrazoiak izatea, sexuan oinarritutako diskriminaziorik eragiten ez dutenak, hala nola lanpostuak lortzeko eta mailaz igotzeko zailtasun bereziak dituzten beste kolektibo batzuetako kide izatea.
- 3d) Klausula bat, zeinaren bidez, gaikuntza-berdintasuna egonez gero, emakumeei lehentasuna emango zaien emakumeak % 50 baino gutxiago diren Administrazioaren kidego, maila, eskala eta kategorietan. Salbuespena izango da lanposturako beste hautagaiak neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duten arrazoiak izatea, sexuan oinarritutako diskriminaziorik eragiten ez dutenak, hala nola lanpostuak lortzeko eta mailaz igotzeko zailtasun bereziak dituzten beste kolektibo batzuetako kide izatea.
- 4 Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testuategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren arabera, enplegatu publikoek honako eskubide indibidual hauek dituzte, beren zerbitzu-harremanaren izaera juridikoa aintzakotzat hartuta:**
- 4a) Lanean diharduen atalari esleitutako helburuak lortzeko lanetan parte hartzeko eskubidea eta egin beharreko egitekoen berri arduradunengandik jasotzeko eskubidea.
- 4b) Inolako bereizkeriarik ez jasateko eskubidea, jaiotza, arraza edo etnia, generoa, sexua edo orientazio sexuala, erlijioa edo sinesmenak, iritzia, desgaitasuna, adina edo bestelako egoera edo inguruabar pertsonal nahiz sozialak direla-eta.
- 4c) Etengabeko prestakuntza izateko eta jakintza nahiz gaitasun profesionala etenik gabe eguneratzen jarraitzeko eskubidea, ahal dela, lan-ordutegiaren barruan.
- 4d) Erantzun guztiak dira zuzenak.
- 5 Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testuategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren arabera, enplegatu publikoek modu kolektiboan baliatzen diren honako eskubide indibidual hauek dituzte:**
- 5a) Emandako zerbitzuari dagozkion ordainsariak eta kalte-ordainak jasotzeko eskubidea.
- 5b) Greba egiteko eskubidea, ezinbesteko zerbitzuak gordeko direla bermatuta.
- 5c) Norberaren bizimodua, lan-arlokoa eta familiartekoa uztartzen lagunduko dioten neurrietarako eskubidea.
- 5d) Lanbide-elkarteetara askatasunez biltzeko eskubidea.
- 6 31/1995 Legearen arabera, zer da “lan-arriskuen prebentzioa”?**



- 6a) Jarduera gauzatzeko fasean soilik hartutako antolamendu-neurrien multzoa.
- 6b) Lanetik eratorritako arriskuak saihesteko hartutako edo aurreikusitako jarduera eta neurrien multzoa.
- 6c) Lan-istripu larrien aurrean hartutako erantzun-neurriak.
- 6d) Lan-ezbehar baten ondorengo ikuskaritza-prozedurak.

7 31/1995 Legearen arabera, zer da “arrisku larri eta hur-hurrekoa”?

- 7a) Dagoeneko istripu larri bat sortu duen arriskua.
- 7b) Langileak baino antzeman ez duen arriskua.
- 7c) Benetako arriskua, hur-hurrean kalte larria eragiteko probabilitatearekin.
- 7d) Ikuskatzaile batek egiaztatutako arriskua.

8 31/1995 Legearen arabera, zer da “lan-ekipamendua”?

- 8a) Makina handi eta konplexuak.
- 8b) Lanean erabiltzen den edozein makina, aparatu, tresna edo instalazio.
- 8c) CE marka duten eskuzko tresnak bakarrik.
- 8d) Ekipo mekanikoak bakarrik, eskuzko erremintak izan ezik.

9 31/1995 Legearen arabera, zer da “lan-arriskua”?

- 9a) Enpresan izandako edozein istripu.
- 9b) Langilearen baldintza subjektiboa.
- 9c) Lanak eragindako kalte bat jasateko posibilitatea, probabilitatea eta larritasuna baloratuz.
- 9d) Ageriko arrisku fisikoak bakarrik.

10 Zein da prebentzio-ekintzaren printzipio nagusietako bat?

- 10a) Neurriak istripuaren ondoren bakarrik hartzea.
- 10b) Kalteak jaso ondoren arriskuak ebaluatzea.
- 10c) Arriskuak jatorrian kentzea edo, kendu ezin badira, murriztea.
- 10d) Babes indibiduala lehenestea, babes kolektiboaren aurretik.

11 Zer eratako prebentzio-prestakuntza jaso behar du langile batek?

- 11a) Langilearen lanpostura egokitutako prestakuntza teorikoa baino ez.
- 11b) Langilearen lanpostura egokitutako prestakuntza teorikoa eta praktikoa.
- 11c) Langilearen lanpostura egokitutako on-line prestakuntza baino ez.

11d) Langilea ez dago behartuta bere lanpostura egokitutako prestakuntza espezifikoa jasotzera.

12 Arrisku elektrikoa duten lanetan, zer bermatu behar du enpresaburuak lan-ekipamenduei dagokienez?

12a) Estatuko hornitzaileei eskuratutakoak izan daitezela.

12b) Aseguratuta egon daitezela.

12c) Langilek berak erabaki dezala ekipamendua askatasunez.

12d) Egokiak izan daitezela, baldintza seguruetan egon daitezela eta behar bezala erabil daitezela.

13 26. artikuluaaren arabera, amatasunari dagokionez, noiz aldatu behar da emakume langile elektrikari baten lanpostua?

13a) Prebentzio-arduradunak hala eskatuz gero.

13b) Haurdunaldiaren hasieran, protokoloari jarraituz.

13c) Arriskuen ebaluazioak adierazten duenean lanpostuak arriskua dakarrela haurdunaldirako.

13d) Bakarrik emakume langilea mediku-bajan badago.

14 Tokiko Administrazioako langile batek prebentzioan dituen betebeharrak bete ezean, nola arautzen da zigorra?

14a) Ezin da zigortu, ez badago benetako kalterik.

14b) Ahozko ohartarazpen bat egiten da soilik.

14c) Dagokion diziplina-araubidea ezartzen da, langilearen zerbitzu-erlazioaren arabera (funtzionarioa edo lan-kontrataduna)

14d) Barruko ohartarazpen bat baino ezin du jaso, espedienterik gabe.

15 Hauetako zein EZ da langile baten betebeharra, 31/1995 Legearen arabera?

15a) Prebentzio-neurrietan laguntzea.

15b) Babes-ekipamenduak behar bezala erabiltzea.

15c) Lan-prozedura prebentiboak egitea.

15d) Arriskua dakarren edozein egoeraren berri ematea.

16 Behe-tentsioko erregelamendu elektroteknikoaren 34. instrukzio tekniko osagarriaren arabera, adierazi aurreikusitako zer okupaziotatik aurrera jarri behar diren segurtasun-argiak erakustazoka baterako instalazio elektriko batean.



- 16a) 100 pertsona
- 16b) 200 pertsona
- 16c) 400 pertsona
- 16d) 500 pertsona

17 Erakustazoketarako eta abarretarako helburu bereziak dituzten instalazioetan, babes diferentziala jarriko zaie esleitutako balioa honako hau baino txikiagoa duten argiztapen-zirkuituei eta harguneei:

- 17a) 16 A, esleitutako korrontea 30 mA baino txikiagoa duen gailu diferentzial batez babestu beharko dira.
- 17b) 32 A, esleitutako korrontea 300 mA baino txikiagoa duen gailu diferentzial batez babestu beharko dira.
- 17c) 25 A, esleitutako korrontea 30 mA baino txikiagoa duen gailu diferentzial batez babestu beharko dira.
- 17d) 32 A, gailu diferentzial batek babestu beharko ditu, eta esleitutako korrontea ez da 30 mA baino gehiagokoa izango.

18 Luminariak instalatzeko orduan, haien etiketa teknikoan ikus daiteke II. MOTAKOAK direla. Zer adierazten du ezaugarri horrek?

- 18a) Ez dela beharrezkoa lurrera konektatzea.
- 18b) Beharrezkoa dela lurrera konektatzea.
- 18c) Haien egitura eta materialak ez direla egokiak itsas inguruneari aurre egiteko.
- 18d) Haien egitura eta materialak egokiak direla itsas inguruneari aurre egiteko.

19 Zenbat gutxitu behar da eroaleen intentsitate onargarria sute-edo leherketa-arriskua duten lokaletako instalazioetan?

- 19a) % 25 instalazio konbentzional bati dagokion balioarekiko.
- 19b) % 20 instalazio konbentzional bati dagokion balioarekiko.
- 19c) % 15 instalazio konbentzional bati dagokion balioarekiko.
- 19d) % 10 instalazio konbentzional bati dagokion balioarekiko.

20 Zein izango da metagailu-bateriak dituzten lokaletako zerbitzu-korridoreen gutxieneko zabalera?

- 20a) 0,75 cm
- 20b) 75 cm
- 20c) 75 m
- 20d) Bat bera ere ez da zuzena.



21 Zer elementu konektatuko dira igerileku bateko konexio ekipotentzial gehigarria?

- 21a) 0,1 eta 2 bolumenetako elementu eroale guztiak.
- 21b) Isolatu gabeko lurzoruak.
- 21c) Alde eroale irisgarriak dituzten ekipo guztien babes-eroaleak, 0, 1 eta 2 bolumenetan kokatuak.
- 21d) Aurreko erantzun guztiak dira zuzenak.

22 Zein izango da kale bateko aldi baterako jai-argiteria instalatzeko kanalizazioen eta inguratzaileen gutxieneko babes-maila?

- 22a) Babes Indizea (IP) 4X
- 22b) Babes Indizea (IP) X5
- 22c) Babes Indizea (IP) 45
- 22d) Babes Indizea (IP) X4

23 Zein izango da erakusketetako, standetako eta jolas-parkeetako aldi baterako instalazio elektrikoaren tentsio izendatua?

- 23a) Nahitaezkoa izango da 230/400 V, korrante alfernoan.
- 23b) 230/400 V gehienez, korrante alfernoan.
- 23c) 230/400 V gutxienez, korrante alfernoan.
- 23d) Bat bera ere ez da zuzena.

24 Oro har, nola instalatuko dira hargailu elektrikoak?

- 24a) Xedearen arabera (lokal mota, kokapena, erabilera, etab.)
- 24b) Kontuan hartuta aurreikusi ezin diren esfortzu mekanikoak eta funtzionamenduan tenperatura arriskutsurik ez gertatzeko behar diren aireztapen-baldintzak.
- 24c) Babestu beharreko hartzaileen ezaugarrien eta erabilera-baldintzen arabera.
- 24d) Aurreko erantzun guztiak dira zuzenak.

25 Zein masa ezin du gainditu kable malguen bidez esekitako luminaria batek?

- 25a) 7 kg.
- 25b) 5 kg.
- 25c) 3 kg.

25d) 1 kg.

26 Nola sailkatzen dira iturri baten bolumenak babes-neurriak aplikatzearen ondorioetarako?

- 26a) 1 eta 2 bolumenak
- 26b) 0 eta 1 bolumenak
- 26c) 1, 2 eta 3
- 26d) Erantzun guztiak dira okerrak.

27 Nork egingo ditu behe-tentsioko instalazio elektriko bat zerbitzuan jarri aurreko ikuskapenak?

- 27a) Instalazioa egin zuen enpresa instalatzaileak.
- 27b) Baimendutako Kontrol-Erakunde batek.
- 27c) Teknikari eskudunak.
- 27d) Aurreko erantzun guztiak dira zuzenak.

28 Zein izango da aireko banaketa-instalazioetan isolatutako eroaleen gutxieneko isolamendu-tentsioa?

- 28a) 300/500 V
- 28b) 450/750 V
- 28c) 0,6/1 KV
- 28d) 1.000 V

29 Zerk eragin ditzake gainintentsitateak instalazio batean?

- 29a) Gainkargek.
- 29b) Zirkuitulaburrek.
- 29c) Deskarga elektriko atmosferikoek.
- 29d) Aurreko erantzun guztiak dira zuzenak.

30 Behe-tentsioko instalatzaile baimenduaren ziurtagiriak indarraldia izango du:

- 30a) 5 urterako, betiere baimena ematea ahalbidetu zuten baldintzak mantentzen badira eta lurralde nazional osoan.
- 30b) 10 urterako, betiere baimena ematea ahalbidetu zuten baldintzak mantentzen badira, eta aztertu den autonomia-erkidegoarentzat soilik.



- 30c) 5 urtean behin, hasierako ikuskapena behar izan zuten behe-tentsioko instalazio elektriko guztien kasuan.
- 30d) 5 urterako, betiere baimena ematea ahalbidetu zuten baldintzak mantentzen badira, eta aztertu den autonomia-erkidegoarentzat soilik.

31 Behe Tentsioko Erregelamendu Elektroteknikoaren ITC-BT-09 instrukzioaren arabera (Kanpoko argiteriaren instalazioak), zein izango da lanparak edo deskarga-hodiak dituzten argi-puntuak elikatzeke lineen kalkuluan kontuan hartu beharreko VAKo itxurazko gutxieneko potentzia?

- 31a) Lanparek edo deskarga-hodiek wattetan duten potentziaren halako 1,5.
- 31b) Lanparek edo deskarga-hodiek wattetan duten potentziaren halako 1,2.
- 31c) Lanparek edo deskarga-hodiek wattetan duten potentziaren halako 1,8.
- 31d) Erantzun bat bera ere ez da zuzena.

32 Obrako behin-behineko eta aldi baterako azpiegituretarako instalazio elektrikoan, kanpoan dauden finkatutako materialek eta instalazioko elementuek babes-maila bat izan behar dute gutxienez:

- 32a) Babes Indizea (IP) 55
- 32b) Babes Indizea (IP) 66
- 32c) Babes Indizea (IP) 45
- 32d) Babes Indizea (IP) 34

33 Lur-harguneko elektrodoa dimentsionatzeko orduan, lokal edo kokaleku eroale bateko (lokal hezea) lur-hargunearen erresistentziak ezingo ditu kontaktu-tentsio hauek baino handiagoak sor:

- 33a) 12 V
- 33b) 24 V
- 33c) 50 V
- 33d) 230 V

34 Behe Tentsioko Erregelamendu Elektroteknikoaren ITC-BT-04 instrukzioaren arabera, konkurrentzia publikoko lokalek proiektu bat izan beharko dute, beren potentzia honako hau baino handiagoa denean:

- 34a) 10 kW
- 34b) 15 kW
- 34c) 20 kW
- 34d) Konkurrentzia publikoko lokal guztiek, instalatutako potentzia edozein dela ere.



**35 Behe Tentsioko Erregelamendu Elektroteknikoaren ITC-BT-25
instrukzioaren arabera, zirkuitu kopurua haxe izango da:**

- 35a) 5 zirkuitu
- 35b) 6 zirkuitu
- 35c) 7 zirkuitu
- 35d) Gutxienez 5 zirkuitu, instalatutako potentzia < 5.000 W-raino, eta beste zirkuitu bat gehiago 500 W edo frakzio bakoitzeko.

**36 Behe Tentsioko Erregelamendu Elektroteknikoaren ITC-BT-25
instrukzioaren arabera, etxebizitzetako instalazioetan, 4 zenbakiko
zirkuituaren eginkizuna haxe izango da:**

- 36a) Garbigailua, ontzi-garbigailua eta termo elektrikoa elikatzea.
- 36b) Sukaldea eta labea elikatzea.
- 36c) Garbigailua, ontzi-garbigailua eta hozkailua elikatzea.
- 36d) Sukaldea, garbigailua eta hozkailua elikatzea.

**37 Argiteria publikoko instalazioetan, lehenetsitako intentsitatea, etengailu
diferentzialen deskonexio-atalasea, honako hau izango da gehienez:**

- 37a) 30 mA
- 37b) 300 mA
- 37c) 0,5 mA
- A37d) 500 mA

**38 Haxe izango da, gehienez ere, lur-hargunearen erresistentzia,
instalazioa zerbitzua jartzean neurtuta:**

- 38a) 5 Ω
- 38b) 10 Ω
- 38c) 30 Ω
- 38d) 50 Ω

**39 Ura sartzeari aurre egiteko estankotasun handiena duen luminaria bat
bilatzen badugu, zein babes-mota aukeratuko genuke aukera hauen
artean?**

- 39a) Babes Indizea (IP) 55
- 39b) Babes Indizea (IP) 57
- 39c) Babes Indizea (IP) 65
- 39d) Babes Indizea (IP) 56

40 Harguneak honelakoak izan daitezke:

- 40a) Airekoak, deribazioan.
- 40b) Mistoak, deribazioan.
- 40c) Lurpekoak, sarrera eta irteerarekin.
- 40d) Bat ere ez da zuzena.

41 Kontagailua honako honen parte da:

- 41a) Lotura-instalazioa.
- 41b) Barneko instalazioa.
- 41c) Instalazio pribatua.
- 41d) Aurreko erantzun guztiak dira zuzenak.

42 Zein sekzio izan behar du babes-eroaleak, faseen sekzioa 16 mm²-koa edo txikiagoa denean?

- 42a) Faseen sekzio bera.
- 42b) Sekzio ezberdina izango da eroaleak kobrezkoak ala aluminiozkoak badira.
- 42c) Fasearen edo faseen erdia.
- 42d) 10 mm²

43 *ITC-BT-05 instrukzioaren dokumentazioa eta ikuskapenak: Behe Tentsioko Erregelamendu Elektroteknikoaren egiaztapenak eta ikuskapenak izeneko II. Kapitulua*ren arabera, instalazioak edo horien handitzeak edo horietan garrantzizko aldaketak egin ondoren, eta betiere autonomia-erkidegoko organo eskudunaren aurrean dokumentatu aurretik, ikuskatu egin beharko dira kanpoko argitzapen-instalazioak, baldin eta:

- 43a) $P > 5 \text{ KW}$
- 43b) $P > 10 \text{ KW}$
- 43c) $P > 25 \text{ KW}$
- 43d) $P < 15 \text{ KW}$

44 Elikadura-linea orokorretako eroaleak honelakoak izan behar dira:

- 44a) Kobrezkoak edo aluminiozkoak
- 44b) Unipolarrak edo tetrapolarrak
- 44c) PVCzkoak edo EPRzkoak
- 44d) Kobrezkoak bakarrik



**45 Hasierako ikuskapen baten ondorioz
"baldintzapeko" kualifikazioa lortzen duen instalazio batek:**

- 45a) Energia elektriko hornituko da, eta 6 hilabeteko epea izango du. atzemandako anomaliak zuzentzeko.
- 45b) Energia elektriko hornituko da, eta 3 hilabeteko epea izango du. atzemandako anomaliak zuzentzeko.
- 45c) Ezin izango da energia elektriko hornitu, harik eta akatsak zuzendu arte.
- 45d) Energia elektriko hornituko da, eta hilabete bateko epea izango du antzemandako anomaliak zuzentzeko.

**46 Etxebizitza baten barruko instalazio batean,
hartuneen zirkuitu orokorra honela egingo da:**

- 46a) Gutxienez 2,5 mm²-ko sekzioa duten eroaleak eta 10 A-ko eten omnipolarreko etengailu automatikoa.
- 46b) Gutxienez 2,5 mm²-ko sekzioa duten eroaleak eta 16 A-ko eten omnipolarreko etengailu automatikoa.
- 46c) Gutxienez 4 mm²-ko sekzioa duten eroaleak eta 10 A-ko eten omnipolarreko etengailu automatikoa.
- 46d) Gutxienez 1,5 mm²-ko sekzioa duten eroaleak eta 16 A-ko eten omnipolarreko etengailu automatikoa.

47 Behe-tentsioko aireko sareetan isolatutako kable tenkatuek, oro har, lurzorutik gutxieneko altuera hau errespetatu beharko dute:

- 47a) 3,5 metro
- 47b) 5 metro
- 47c) 4 metro
- 47d) 2,5 metro

48 Lokal heze bateko instalazio berri batek hauxe behar du:

- 48a) Proiektua, betiere instalazioan aurreikusitako potentzia 20 KW-koa edo handiagoa bada.
- 48b) Proiektua, betiere instalazioan aurreikusitako potentzia 10 KW-koa baino handiagoa bada.
- 48c) Diseinuko memoria teknikoa



- 48d) Proiektua, betiere instalazioan aurreikusitako potentzia 15 KW-koa baino handiagoa bada.
- 49 Abuztuaren 2ko 842/2002 Errege Dekretuz onartutako Behe Tentsioko Erregelamendu Elektroteknikoaren ITC-BT-09 instrukzioaren arabera, kanpoko argiztapenaren aireko sare batean, eroale guztietarako (neutroa barne) erabili beharreko gutxieneko sekzioa haxe izango da:**
- 49a) 2,5 mm²
49b) 4 mm²
49c) 6 mm²
49d) 16 mm²
- 50 Motor bakarra elikatzen duten konexio-eroaleek gutxieneko sekzio batekin dimentsionatuta egon behar dute intentsitate honetarako:**
- 50a) Intentsitatearen % 90, motorraren karga betean
50b) Intentsitatearen % 100, motorraren karga betean
50c) Intentsitatearen % 125, motorraren karga betean
50d) Intentsitatearen % 150, motorraren karga betean

ERRESERBAKO GALDERAK

- 51 Enplegatu publikoek (erantzun zuzena aukeratu):**
- 51a) Enplegatu publikoek ez dute pertsona fisiko nahiz erakunde pribatuengandik mesede-traturik onartuko, ezta arrazoirik gabeko pribilegioa edo abantaila dakarren egoerarik ere.
- 51b) Eraginkortasun-, ekonomia- eta efizientzia-printzipioen arabera jardungo dute; eta interes orokorraren alde joka dadin eta erakundearen helburuak bete daitezen zainduko dute.
- 51c) Enplegatu publikoek arretaz beteko dituzte egitekoak, dagozkienak nahiz agindutakoak, eta, hala dagokienean, epe barruan ebatziko dituzte eskumenean dituzten prozedurak eta espedienteak.
- 51d) Erantzun guztiak dira zuzenak.
- 52 31/1995 Legearen arabera, zer dakar lan-ekipamendu bat “potentzialki arriskutsua” izateak?**
- 52a) Inoiz ez dela erabili behar.



- 52b) Neurri espezifikorik gabe, segurtasunerako edo osasunerako arriskuak ekar ditzakeela.
- 52c) Legeak debekatu egiten duela.
- 52d) Beti ordezkatu behar dela.

53 Zein de enpresaburuaren betebeharra prebentzioari dagokionez?

- 53a) Prestakuntza eskaintzea langileak eskatzen duenean bakarrik.
- 53b) Prestakuntza teorikoa bakarrik eskaintzea.
- 53c) Langileen segurtasuna eta osasuna bermatzea lanarekin lotutako alderdi guztietan.
- 53d) Jarraibide orokorren eskuliburu bat eskuragarri jartzea, lanpostuarekiko egokitzapenik gabekoa.

54 Zer egin behar du enpresaburuak arrisku elektrikoekiko sentibera den langilerik badago?

- 54a) Ez du neurri berezirik hartu behar.
- 54b) Lanpostua egokitu edo berariazko neurriak hartu.
- 54c) Langileak behartu eskuzko ekipamenduak bakarrik erabiltzera.
- 54d) Ekipamenduekin harremanik ez duen lanpostu batera aldatu.

55 Sute- edo leherketa-arriskurik ez duten hautsez betetako lokaletako instalazioen Babes Indizea (IP) haxe izango da:

- 55a) Babes Indizea (IP) 4X
- 55b) Babes Indizea (IP) 3X
- 55c) Babes Indizea (IP) 5X
- 55d) Babes Indizea (IP) 2X

56 Igerilekuetako instalazio elektrikoetan, igerilekuko zoruaren azpiko behin-behineko elementu bero-emaila elektrikoak onartuko dira, baldin eta honako baldintza hauek betetzen badituzte:

- 56a) Elementu horiek MBTSz elikatuta egotea (segurtasun-tentsio oso baxua), eta segurtasun-iturria 0 eta 1 bolumenetatik kanpo egotea.
- 56b) Elementu horiek MBTSz elikatuta egotea (segurtasun-tentsio oso baxua), eta segurtasun-iturria 1 eta 2 bolumenetatik kanpo egotea.
- 56c) Elementu horiek zuzenean lurrera konektatuta egotea.
- 56d) Elementu horiek MBTSz elikatuta egotea (segurtasun-tentsio oso baxua), eta segurtasun-iturria 0, 1 eta 2 bolumenetatik kanpo egotea.



57 Aireko banaketa-sareetan erabiliko diren eroaleen gutxieneko sekzioa hauxe izango da:

- 57a) 16 mm² aluminio, 10 mm² kobre
- 57b) 10 mm² aluminio, 16 mm² kobre
- 57c) 25 mm² aluminio, 16 mm² kobre
- 57d) 16 mm² aluminio, 25 mm² kobre

58 Kontagailuen zentralizazioa jasoko duen lokala:

- 58a) Berogailu-galdaren gelan instalatu ahal izango da.
- 58b) Berogailu-galdaren gelan instalatu ahal izango da, baldin eta Mo motako hormak baditu.
- 58c) Ur-kontagailuen kontzentrazioan instalatu ahal izango da, baldin eta ur-kontagailu horiek IP78 babes-indizea badute.
- 58d) Ez da beste lokal batzuetarako ez pasabidea ez sarbidea izango.

59 Aireko banaketa-sareetan eroaleen loturak eta konexioak egiteko, honako hauek erabili ahal izango ditugu:

- 59a) Metalezko piezak, soldadurak, betiere kontaktu elektriko eraginkorra bermatzen bada.
- 59b) Metalezko pieza egokiak, soldadura; korrosioarekiko erresistenteak eta kontaktu elektriko eraginkor bat bermatuko dutenak.
- 59c) Metalezko pieza egokiak, korrosioarekiko erresistenteak, eta kontaktu elektriko eraginkor bat bermatuko dutenak.
- 59d) Bat bera ere ez da zuzena.

60 Lurpeko banaketa-sareetan kableak ezartzea errazteko, gomendatzen da tarteko kutxatilak jartzea gehienez honako distantzia honetara:

- 60a) 50 metro
- 60b) 20 metro
- 60c) 40 metro
- 60d) 30 metro